Carta Arqueológica de Guipúzcoa

Arantzadi Zientzia Elkarteak 1948an sortuz geroztik ohituak gaitu iker lan eder eta serioak erakusten eta horietako beste bat dugu oraingo hau ere: ***Carta Arqueológica de Guipúzcoa*** *deritzan lana, aurtengo* ***Munibe*** *aldizkariaren 1-3 zenbakiak osatzen dituena. J. Altuna, K. Mariezkurrena, A. Armendariz, L. del Barrio, Tx. Ugalde eta J. Peñalver izan dira bere egileak.*

Arantzadikoek Natur Zientziak orokorki erabili badituzte ere, gaietan sailkaturik egiten dituzte beren lanak eta horien artean Arkeologi sailekoak izan dira errotuenak, gure herrian azken urteotan hortarako joera gehiago izan delako. Aukera gehiago ez dut esango, zeren denok dakigu gure herrian edozertariko kultur gaiak zein aukera guti izan duten, eta Arantzadikoek ez ezik langintzok hurbildik jarraitu dituztenek ondo dakite beren nekearen berri.

Lan hontan, Gipuzkoako historia aurretiko azternategi eta monumentoak zehatz katalogatuak datoz, haitzuloetatik hasi eta erromatarren garaira arteko aurkikintzen berri emanaz. Lehenago J. M. Barandiaran, J. Elosegi, I. Barandiaran, J.M. Apellaniz eta orain elkarlanean buru egin duen J. Altuna berak doktoradua egitean argitaratu zituzten lanetan oinarritzen da, geroztiko aurkikuntzak gehituaz. Toki edo monumento bakoitzari fitxa zehatza egin zaio, non aukitzen den, katrastoan dituen koordenadak, helbidea, adierazpena, nola konserbatzen den, aurkitu zenetikako historia, zer material arkitu zen, non gordetzen diren materialok eta bibliografia. Krokis eta argazki ugari ditu. Eta aparteko karpeta batean 17 mapa 1:25.000 eskalaz, bakoitza non kokatzen den numeroz jarrita. Bestalde, aurkibidea errazteko, Gipuzkoa osoa hartzen duen 1:100.000 eskaladun mapa orokorra. Guziz: 100 azternategi haitzuloetan, gehienak arkeologia materialak aurkitu direnak, beretariko bitan pinturak ere bai, eta guti batzutan paleontologiazko materialak; 148 treguharri, tumulo eta zista deritzan treguharri tipiak; 93 kromlex edo harrespil; 12 menhir eta beste zenbait azaleko azternategi. Eskualdeka sailkatuak datoz, azkenean Erromatarren aurkikundeak bilduaz. Bukaeran bibliografia orokor bat eta monumentu edo azternategi guzien zerrenda alfabeta ordenaz aurkibidea errazteko, eta herrienarekin amaituz.

Aurrerantzean hortaz lanik egin nahi duenak, edo zerbait aurkitu eta zalantzak dituenak, hortik jakingo du zer dagoen egina edo ezaguna den ala ez. Lan taldeak sistema ona erabili du eta zehaztasunez burutua da.

Duela hogetaka urteak zenbait ibilaldi egina naiz, aurkitze bikainik egin ez banuen ere. Orain hor ikusten ditut aipatuak. Intentzioz bila irtendakoetan aurkikuntza egokirik izan ez banu ere, uste gaberik aurrekaldera agertuak izan ziren interesgarriena Ernio mendiko treguharriak bezala. Bestalde, aurkitu nituen zenbait ez dut zalantzan jartzen hain seguroak etzirenik, baina Kanpaisulo eta Galbarraingoak argi zeuden nere ustean. Bestalde, Alabietakoa, zalantzaz jartzen nuena, tumulotzat egiztatua da. Kalamuakoak Bizkai partean badaude ere, azaleko azternategi bat bada Garagoitxiko lepoan, Gipuzkoa partean Eibarko lurretan, J. M. Barandiaranek gezia aurkitu zuen lekuan. Handik hurbil, Akondiara bidean, beste silex zati bat bilatu nuen, eta bide berean baina Akondiako lepoan beste gezi bat Migel Beorlegik. Baita ere, Gorosta-beiña baserri ondoan harrizko aizkora bat, J. M. Barandiuranen omenezko ***Munibe*** *aldizkarian adierazia.*

Sarreran gehigarrientzat eskatzen duen aukerari jarraituz, baita ere, esan beharra dut, igazko udaberrian Eibarko Agerre baserrian Erromatar errotarri bat aurkitu nuela. Oraingoz baserri berean gordetzen da, Eibarren museo bat egingo balitz bertarako asmoan; harrizko aizkora nerean dudan bezala.

Lasarteko Zubietatik Andatza alderako gain hartan ere treguharri bat aurkitu nuen, Andatzako biak baino askozaz beherago. Trenerako orduz juxtu nenbilenez, ez nuen egin ezertariko neurketarik, urrengorako utziaz. Baina, urrengo hura hiru edo lau urteko atzerapena izan zen eta bitartean pinuak eta sasiak eta inondikan ere ezin bilatu.

Poeta bat izan zen Artasokoa aurkitu zuena: Bitoriano Gandiaga; aurkitzeaz gainera olerki polit bat egin ere bai. Eta, orain, aurtengo udaran, beste poeta batek eman zidan Santatri (San Adrian, aintzina Santa Trinidad zena) zehar doan kaltza zaharrak une batzutan beste zaharrago baten lorratzak zeudenaren berri: Xabier Azurmendik. Eta, udaran ikusi genuen kaltzada haren parterik altuenean, alde batera eta bestera bide zuzenago bat agertzen zela, bi alderdiak eta bidearen erdia harri handiagoz armatua eta hain ezaguna duguna bera baino hobeto egina. Nonbait, hura zen zaharra, eta orgak edo gurdiak handitzeaz aldatz apalagoz berria ideki. Bere egituraz Erromatarra dirudi, baina zihurtatzeko han-hemenka azterketak egin beharra dago, ea zer agertzen den. Oroi Araian eta Aizkorriko Oltzan ara direlakoak aurkituak direla eta Idiazabalen monedak.

Berez, ez luke harritzekorik Oria ibaian gora, Oiarso-Irun aldetik Arabako ordekara bidea izatea. Nere ustez, Erdi-Aroko biderik gehienak lehenago idekiak izango ziren. Erromatarrak inork uste baino gehiago jabetu ziren Euskal Herriko erresumaz. Gipuzkoan aurkitu diren aztarnategiak aski berriak dira; esango nuke hasi besterik ez dela egin eta oraindik gauza asko agertzeko zorian gaudela.

Carta Arqueológica de Guipúzcoa *hortan esaten denez, 1871an aurkitu zen Aizkirri deritzan haitzukoko aztarnategia eta lehen treguharriak Aralarren 1879an, hogei urte geroago Aizbitarte aztarnategia eta ikerketarik gehienak gure mende honen lehen partean hasita. Beraz, oraindik berriak ditugu prehistoriazko ikerketak, Arantzadi Elkartearen ekintzak Gipuzkoa gehiena begiratua bada ere, egon ziur aurkikundeak gertatzitzutsurik ezagutuko dugula ondoko urtetan ere. Arantzadi talde jator horregandik hala espero dugu.*

Juan SAN MARTIN

Los fascículos 1-3 del volumen 34 de *Munibe* que acaba de publicarse, nos viene a ofrecer un contenido monográfico de gran interés, la *Carta Arqueológica de Guipúzcoa*, que bajo la dirección de Jesús Altuna han confeccionado en colaboración K. Mariezkurrena, A. Armendariz, L. del Barrio, Tx. Ugalde y J. Peñalver. Recoge una ficha completa por cada yacimiento o monumento, desde el Neolítico hasta la época Romana, pasando por los megalitos del Neolítico a la Edad del Hierro. Señalando su localización, coordenadas, acceso, descripción, conservación, historia, materiales, secuencia cultural y bibliografía.

La Carta recoge un total de 100 yacimientos en cueva, alguno de los cuales son puramente paleontológicos, 148 dólmenes, túmulos y cistas, 93 cromlechs, 12 menhires, algunos yacimientos al aire libre y unos pocos yacimientos y hallazgos de época romana. Viene a ordenar y actualizar los catálogos realizados por J. M. de Barandiarán, J. Elósegui, I. Barandiarán, J.M. Apellaniz y el propio J. Altuna.

Una vez más la sección de Arqueología de la Sociedad de Ciencias Aranzadi nos viene a ofrecer un serio trabajo realizado no sin esfuerzo, y que sistematiza para la provincia localización de los yacimientos o estaciones megalíticas, recogiendo tado con una bibliografía e índices, más una carpeta aparte donde se acompañan un mapa general de la provincia a escala 1:100.000 y 17 mapas fragmentados a escala 1:25.000 abarcando toda Guipúzcoa.

Atendiendo a la invitación citada en la introducción de dicho trabajo informó la localización de un yacimiento al aire libre entre Akondia y el collado de Garagoitxi, donde encontró J. M. de Barandiarán localizó una punta de flecha de Silex. nal (que fue informado en *Munibe*), otra punta de flecha siguiendo el mismo camino pero en el collado de Akondia, otra llado por Miguel Beorlegui, más un raspador de silex, también hace un par de años localicé a mitad de trayecto entre ambos lugares. Hacha pulimentada de ofita junto al caserío Gorosta-beña (publicado en *Munibe*) y una piedra de molino Romana junto al caserío Agarre (antiguamente Aguirre). Todo ello en término municipal de Eibar y cuyo material quedará a disposición del Patronato de Museo local si dicho proyecto se llevara a cabo.

Biblioteka haundi baten berpizkundearen alde

Liburua gizartea bateko bizitzaren ispilua ez ezik horrek osaturiko Herriaren historia jaso eta denbora projektaizen doan ibilgailu zintzoa dugu. Liburuaren bitartez gizartearen hezkuntza lortzen da, kulturak markatzen dituen mugak gainditzen lagun dezakeen batera. Literatur idatzirik gabeko herriak ez du aurrerapenerako oinarri tinkorik sortzen, bere iraupena bera galzorian ipintzen duelarik.

Ez dut uste euskaldunok kexa gaitezkeenik gure Herriaren gaineko liburu produkzioari dagokionez. Kontuz! hau diodanean mundu guztian guri buruz idatzitakoari nagokio eta ez bakarrik hemengoari. Alderdi guztietatik ikasi eta aztertua izan den nazio bateko pertsonaiak gara eta alde honetatik harro xenti gaitezkeela deritzait. Hain bitxiak garen !

Herriaren ekimen pribatuek zerikusi handia euki dute liburu produkzio hau bideratu nahi izan denean. Ahaleginik gehienak pribatuen edota erdi publikoak diren erakundeen bitartez egin dira eta heuren asmoa ondo bete dutela esan daiteke. Gaurregun gure probintzietan diren zenbait biblioteka Herriaren izanagatik arduraturik bizi izan den eta ez bizi den jende mota bati zor zaio. Denon eskerrona txikia geratuko litzateke behinola hoien lana ordaintzera joango bagina. Biblioteka berezituak edota gai orokorrekoak. Ikerle eta ikasle guztion zerbitzurako.

Baina gaurko lerro hauek, Konkretuki, Biblioteka bati eskaintzen dizkiot. Hobe esan, Biblioteka horren inguruan sortu den kan painak idaztera bultzatu nauelarik, artikulu honen mezua herri kontzientziari zuzendu nahi diot, planteaturik dagoen arazoari zernolako irtenbiderik eman dakiokeen guztion aurrean erabaki dadin.

1964.an Gasteizko Udal Aurrezki Kutxak Biblioteka espezializatu bat osatzeko asmoari ekin zion, gaia —gai orokorra— euskal munduarekin loturik litekeena zelarik. Helburu honen aitatasuna Bizente Botella *jaunari eman behar zaio. Hainbeste urteetan zehar Kutxaren zuzendaritza eroen duen gizonak barneko ideia hura* Institución Sancho el Sabio *deritzan erakundearen bitartez gorpuztu ahal izan zuen.*

Pixkana, pixkanaka Bibioteka hau Euzkadin direnen arteko hoberena bihurtu da, gaurregun 15.000 liburu baino gehiago daukalarik. Diodan bezala, euskal gaia du ardatz. Eta bere ospeak gure mugak gainditu dituela aitortu behar da, "datu gordailu" hau kanpoko ikerle askok erabiltzen baitu. Liburu bilduma lortzea Aurrezki Kutxari esker izan da posible, azkenengo urteetan ainzinkontuetan libururik erosteko partida garrantzitsurik sartu baitu. Unean uneko liburuak ez ezik baita erakundea sortu aurreko asko ere erosi ahal izan du, sekulako kultur altxorrik osatzen joan delarik.

Baina, betiko baina!, gauzak aldatu egin dira eta zenbait baldintzak pentsamoldea bera aldaterazi dute. Ondorioz, publikapenik erosteko orduan lehengo zenbakiak murritu egin dira eta honek Erakundearen Biblioteka maldan behera jarri du, urteetan erdietsitako osotasuna apurzorian dogoelarik.

Orohar, izandako aldakuntza honen bi arrazoi aipatu behar dela deritzait, ene ustez gaurko egoeran indar berezia jokatu dutenak. Alde batetik zio ekonomikoa dago. Guztiok dakigun legez, oraingo eta duela hamazortzi urteko egoera ekonomikoak ez dira berdinak. Ezta, are gutxiago, perspektibak ere. Honez ez du esan nahi Aurrezki Kutxa eta Bankuen Galdu-Irabazien kontuek lehen baino itxura txarragorik erakusten dutenik. Ez. Baina desberdintasun horrek enpresa hoeitako zuzendaritzen joakera aldatu du eta gizarte ekintzetarako gorde behar den ehunekotik —Kutxetan irabazien 50%.a oker ez banago— banaketa bariatu egin da, kultur ekintzen kapitulua batez ere txikitu egin delarik.

Bestalde, eta arrazoi honek ekonomikoa eragin duela esango nuke, arrazoi politikoa *dugu. Beren funtsa eta jomuga direla eta, Aurrezki Kutxak sustraiak herriagotuak euki ditu Bankuak baino. "Populartragoa" izan da, herriarengatik "gehiago" egiten zuela baitziruden. Eta, azken finean, uste zuzena da, Kutxen "joku erreglak" honela eskatzen du eta. Oraingo egoera politikoak —Euzkadiri dagokionez, batez ere— Aurrezki Kutxen ardurapean eramanda izan diren zenbait ekintza gure Gobernuak eraman dezakeela pentsaterazi du. Hau dela eta, kultur sailekoak (liburu argitalpenak, erakusketak,...) zorrotzagoki dira aztertuak inbertsioa egin aurretik.*

Sancho el Sabio.ko Bibliotekaren hazkundea geratu egin da, edo —behintzat— ez daroa lehengo martxa. Honek eragozpen frango adierazten du bizirik iraun nahi duen gizartean. Ez dugu ahaztu behar Gasteizen Euskal Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea dugunik eta honek gaurkotasunik eskatzen dio Bibliotekari, ikasleek gaien aurrerapena jarrai dezaketen.

Bibliotekaz aparte baita Sancho el Sabio-ren boletinari ere berrindartu behar zaiola dirudi, eta Erakundearen ekintzen aldeko kanpaina barruan urtekari honen berplanteaketa zartu da. Aurten hogetabostgarren zenbakia kaleratu du Boletinak, probintziako kultur gaiak mende laurden batetan argitaratzen ihardun ondoren.

Hasieran nioen bezala, mugimendu bat eratu da Sancho el Sabio Erakundearen ekintzak nola bidera daitezkeen aztertu ahal izateko. Haren bitartez agintariei deirik egiten zaie arazoaren garrantziaz jabe daitezen. Dudarik ez, irtenbidea, bakarrik, erabaki politiko batek ekar dezioke eta euskal kulturari egingo dion mesedearengatik erabaki hori hartuko delakoan daude kanpainaren arduradunak. Bestela, orain arteko lanari ostikada galanta mango litzaioke. Eta gure kulturak nahikoak hartuta dauzka!.

Josemari VELEZ DE MENDIZABAL

La Institución Sancho el Sabio es una obra cultural de la Caja de Ahorros municipal de Vitoria, que está siendo objeto de una campaña de apoyo, en orden a volver a dotarla de los medios que hagan posible recuperar el puesto privilegiado que ocupaba hasta hace bien poco en cuanto a actividad cultural se refiere.

Son concretamente la Biblioteca y el Boletín de la Institución los objetivos de la mencionada campaña, que como punto más significativo va a hacer pública una delcaración ante las autoridades sobre la situación en que se encuentra dicha obra cultural. Esta declaración coincidirá con la celebración en Vitoria del Congreso de Estudios Históricos "La formación de Alava", a desarrollar entre el 27 de septiembre y el 2 de octubre próximos.

La constitución de la Biblioteca data de 1964, pudiéndose decir que su alma mater fue el que durante largos años ha sido director de la CAM, D. Vicente Botella, hombre extraordinariamente sensible a todo lo que tenga relación con nuestro país. Esta Biblioteca, con más de 15.000 ejemplares en la actualidad, posee un denominador común, ya que fue concebida como Biblioteca dedicada exclusivamente a los estudios vascos. Desde su fundación la CAM ha dispuesto cantidades importantes para la adquisición de libros, no solamente vascos, sino también, en elevada cuantía, extranjeros. Hoy en día, debido a motivos económicos, esas partidas han sido reducidas, con lo que la Biblioteca se ve muy mermada sus posibilidades de cubrir el público compuesto, en su mayoría, por propio de "toda la vida", por profesores y alumnos de la Facultad de Filosofía y Letras existente en la capital alavesa, por investigadores en nuestro país de carácter vasco. Y, por supuesto, por cualquier persona interesada o estudiosos de nuestro pueblo, que no cuentran en esta Biblioteca, y en su banco de datos necesario para realizar su trabajo.

Por otra parte, y dentro de la misma campaña de apoyo a la Institución, se encuadra la idea de sacar adelante el Boletín de la Institución, que se encontraba dedicado a 1981 hace más de veinticinco de los publicados. Se trata de uno de los vehículos más adecuados para con que cuenta Alava para la difusión y divulgación de los estudios y trabajos sobre la provincia.

Estos son, resumiendo, los objetivos principales que recoge la declaración que se pretende presentar a las autoridades y estamentos correspondientes: 1) Presupuesto adecuado para revitalizar la Biblioteca. 2) Ampliación del local actual. 3) Adquisición de material secundario, sobre todo geográficas laminadas, sobre nuestro país, y sobre países relacionados, especialmente con el euskara. 4) Adquisición de obras de carácter universal, 5) Revistas nacionales de carácter científico. 6) Hemeroteca, de las publicaciones periódicas del país.

Confiamos en que la Institución Sancho el Sabio, llegue a una solución adecuada a la situación que continúe prestando los importantes servicios que hasta la fecha viene rindo ofreciendo. Por bien de la cultura vasca.